Batzordeburu: Rafael Cerdán Arandia jauna, Osasun sailburuordea.

Batzordekideak: Luis González de Galdeano Esteban jauna, Osasun Publikoko zuzendaria, eta M.ª Luisa Arteagoitia González andrea, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria.

Idazkari: José M. Sánchez Muñoz jauna, Osasun Publikoko Zuzendaritzako teknikaria, Osasun Hezkuntzako arduraduna.

***Bigarrena.–*** Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko martxoaren 18a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

Presidente: D. Rafael Cerdán Arandia, Viceconsejero de Sanidad

Vocales: D. Luis González de Galdeano Esteban, Director de Salud Pública, y D.ª M.ª Luisa Arteagoitia González, Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria.

Secretario: D. José M. Sánchez Muñoz, Técnico de la Dirección de Salud Pública, responsable de Educación para la Salud.

***Segundo.–*** La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2004.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

## KULTURA SAILA

## Zk-1960

AGINDUA, 2004ko martxoaren 29koa, Kultura sailburuarena, entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara-planak garatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen 2003ko Aginduari 2004ko ekitaldian ezartzeko behar diren egokitzapenak egiten dizkiona.

Euskadiko Aurrekontuen Erregimenari buruzko legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren IX. tituluan ezarritakoaren babesean, abenduaren 23ko 317/2003 Dekretua eman zen. 317/2003 Dekretuak Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontuen pentzutan emandako laguntzak eta diru-laguntzak arautzeko zenbait xedapenen indarraldia luzatzen du; eta xedapen horiek 2004ko ekitaldian aplikatzeko Sail zein Erakunde Autonomoei epeetan, baldintzetan eta beharkizunetan beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko ahalmena ematen die.

2003ko ekitaldian diru-laguntzak esleitu ziren, entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara-planak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 2003ko uztailaren 29ko Aginduaren babespean (EHAA: 2003/8/18; 159-II ale-zenbakia). Beraz, Agindu hori 2004ko ekitaldian aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren egokitzapenak egin behar dira.

Horiek horrela,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-1960

ORDEN de 29 de marzo de 2004, de la Consejera de Cultura, por la que se adapta para su aplicación durante el ejercicio 2004 la Orden de 2003, por la que se regula la concesión de subvenciones para el desarrollo de planes de euskera en entidades del sector privado y en corporaciones de derecho público.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 317/2003, de 23 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2004.

En el ejercicio 2003 se concedieron subvenciones al amparo de la Orden de 29 de julio de 2003 (BOPV: 18/8/2003; n.º 159-II), de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el desarrollo de planes de euskera en entidades del sector privado y en corporaciones de derecho público, por lo que procede la adaptación de la misma para su aplicación en el ejercicio 2004.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo de presentación de solicitudes.

Kultura sailburuaren 2003ko uztailaren 29ko Aginduak entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara-planak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen. 2004ko ekitaldian, Agindu horren bidez arautrutako diru-laguntzen deialdian parte hartu nahi duenak Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2004ko maiatzaren 21era arteko epea izango du eskabidea aurkezteko.

*2. artikulua.–* Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Honen bitartez emango diren diru-laguntzak eskatu nahi dituztenek eskabidea aurkeztu beharko diote Hizkuntza Politikarako sailburuordeari 2003ko uztailaren 29ko Aginduko I. Eranskinean datorren ereduari jarraituz; horrekin batera, eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute. Hori dena edo zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izango da.

*3. artikulua.–* Diru-baliabideak.

1.– Agindu honen bidez ezarritako diru-laguntzetarako, 961.619,00 euro erabiliko da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako ataletatik.

2.– Artikulu honetan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da honako hiru baldintza hauen menpe: eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa, Kultura Sailean laguntzak emateko beste egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuan ahitu gabe geratutako dirua eta diru-laguntzak ebatzi gabe egotea. Adierazitako aldaketaren berri Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen bidez eman beharko da.

*4. artikulua.–* Data eta epeen egokitzapena.

1.– Agindu honen ondorioetarako, 2003ko uztailaren 29ko Aginduan 2003 eta 2004 urteei eta 2000-2001, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteei egiten zaizkien erreferentziak hurrenez hurren ondoko urte eta ikasturteei egiten zaizkiela ulertu beharko da: 2004 eta 2005 urteei, eta 2001-2002, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteei.

2.– 2003ko uztailaren 29ko Aginduko 18.2 artikuluan otsailaren 27ari egiten zaion erreferentzia, otsailaren 28ari egiten zaiola ulertu beharko da.

3.– II. eranskinean «INFORMATIKA-EUSKARRIAN DAGOEN TAULA» 2000, 2001 eta 2002ko deialdiei egiten zaien erreferentzia, hurrenez hurren 2001, 2002 eta 2003ko deialdiei egiten zaiela ulertu beharko da. Halaber, erantsitzat joko da ondoko aginduaren erreferentzia: 2003ko uztailaren 29ko Agindua, Kultura sailburuarena, entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara-planak egiteko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la Convocatoria de ayudas establecida por Orden de 2003 (BOPV: 18/8/2003), de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el desarrollo de planes de euskera en entidades del sector privado y en corporaciones de derecho público, en el ejercicio 2004, comenzará el día siguiente al de la publicación de la presente Orden y finalizará el día 21 de mayo de 2004.

*Artículo 2.–* Solicitudes y documentación a presentar.

Las personas solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán dirigirlas conforme al modelo que se incluye como anexo I en la Orden de 29 de julio de 2003, junto con la documentación exigida, al Viceconsejero de Política Lingüística, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Recursos económicos.

1.– Se destinan al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden 961.619,00 euros, con cargo a las partidas presupuestarias establecidas al efecto en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2004.

2.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Política Lingüística.

*Artículo 4.–* Adaptación de fechas y plazos.

1.– A los efectos de la presente, las referencias que en la Orden de de 29 de julio de 2003, se efectúan a los años 2003 y 2004; y a los cursos 2000-2001, 2001-2002 y 2002-2003, han de entenderse efectuadas respectivamente a los años 2004 y 2005 y a los cursos 2001-2002, 2002-2003 y 2003-2004.

2.– La referencia que en el artículo 18.2. de la Orden de 29 de julio de 2003, se efectúa al día 27 de febrero, habrá de entenderse efectuada al día 28 de febrero.

3.– En el anexo II «TABLA EN SOPORTE INFORMÁTICO», la referencia a las convocatorias 2000, 2001 o 2002, habrán de entenderse efectuadas a las correspondientes a 2001, 2002 o 2003, y dar por incorporada la referencia a la Orden de 29 de julio de 2003 de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el desarrollo de planes de euskera en entidades del sector privado y en corporaciones de derecho público.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*Bigarrena.*– Honako Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko martxoaren 29a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

*Segunda.*– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2004.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## Zk-1961

EBAZPENA, 2004ko martxoaren 15ekoa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2003. urteko urri-abendua bitarteko epealdian euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatutako alta-inskripzio eta bestelako oharpenak argitara ematen dituena.

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Kultura sailburuaren Aginduko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.*– 2003. urteko urri-abendua bitarteko epealdian euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatutako euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzako zentro homologatuen zerrenda argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako I. Eranskinean dago eta zentroaren izena, inskripzio-zenbakia, sailkapena, titularra, helbidea eta Kultura sailburuaren Aginduaren data jasotzen dira.

*Bigarrengoa.*– 2003. urteko urri-abendua bitarteko epealdian euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan jasotako oharpenen zerrendak argitara ematea. Zerrendak ebazpenari atxikitako II., III. eta IV. Eranskinetan daude.

Donostia-San Sebastián, 2004ko martxoaren 15a.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

## N°-1961

RESOLUCIÓN de 15 de marzo de 2004, del Director General de HABE, por la que se hacen públicas las inscripciones de alta y otras anotaciones practicadas en el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera durante el período octubre-diciembre del año 2003.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 2 de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera, y en virtud de las facultades que me otorga el Decreto 34/1996, de 13 de febrero, por el que se aprueban las normas orgánicas de HABE,

RESUELVO:

*Primero.*– Hacer pública, según figura en el Anexo I de la presente resolución, la relación de los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje de euskera inscritos en el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera durante el período octubre-diciembre del año 2003, con expresión del número de inscripción, denominación, domicilio social y titular del mismo.

*Segundo.*– Hacer pública, según figuran en los Anexos II, III y IV de la presente Resolución, la relación de las anotaciones practicadas en el Registro de euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera durante el período octubre-diciembre del año 2003.

En Donostia-San Sebastián, a 15 de marzo de 2004.

El Director General de HABE,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.